

gaz-teak



Ejemplar gratuito

320 Zb
www.getxo.eus

>> 2018ko urtarrila

Nabarmen^{tze}koak

- > Romoko Gazteleku berriaren irekiera dela eta auzoan prozesu bat jarriko da martxan
- > Skautek eta Gaztelekuko gazteek grafiti bat egingo dute Portu Zaharrean
- > Gazte intereseko elkarteentzako diru-laguntza deialdia zabalduko da

Aldundiak gazteen 8 proiektu berritzaile finantzatu ditu

Bizkaiko Foru Aldundiak 100.000€ bideratuko ditu 2018. urtearen amaierara arte gizarte-erakundeek gazteen arloan gizarte-berrikuntzako proiektuak egin ditzaten. Proiektuak 15 eta 29 urte bitarteko bizkaitarrek eginak edo/eta bizkaitarrei zuzendutakoak dira.

Subentzio-lerro horri esker Aldundiak babestuko dituen erakundeak, honako hauek dira: Welcome Innovation, Inteligencia Social, Prevención y Gestión de Conflictos Elkarte, Topagunea, Kiribil Sarea, Solidarters Fundazioa, Matiz, EDE eta Gizartekoa.

Finantzatuak proiektu guztien oinarrian aurkitzen dira gazteen eta gizarte zibileko erakundeen arteko lankidetzak eta sormena; hala, gizarte-berrikuntzako proiektuak jo dituzte gizartean onurak eragiteaz gain, pertsonen jarduerak-gaitasuna ere hobetzen dutenak; kasu honetan pertsona gazteena.

Gaztedi Bizkaia 2020 da gure lurraldean gazteria-politikak koordinatzen dituen Foru Aldundiaren estrategia, eta horren barruan sartzen dira, zehazki, diru-laguntza hauek.

Diruz lagundutako proiektu berritzaileen laburpena:

<https://goo.gl/5KtRSR>



Eski-estazioetan deskontuak, Gazte Txartelarekin



Gazte Txartela izateagatik gazteek hainbat abantaila dituzte Estatuko eta Europako eski-estazioetan. www.gazteukera.euskadi.eus webgunean eskura dauden deskontu berezi guztiei buruzko informazio osoa eskaintzen da: forfait-a erostean, kremailera-trean eta neguko jardueretan. Estazio bakoitzaren arabera dira deskontuak. Ostatueta ere beherapenak eskaintzen ditu txartelak.

Gazte-txartela Europako Gazte Txartelaren Elkarte (EYCA) partaide diren herrialdeetan onartzen dute.

BEKAK SARIAK

* **Graduatu ondoko ikasketak egiteko bekak**, La Caixa Gizarte Ekintzak deituta European, Ipar Amerikan eta Asia-Pazifikko eremuan; Espainian doktoretza eta doktoretza ondoko ikasketak egiteko ere badira. Argibideak: <http://obrasocialcaixa.org>.

* **Hiru ikerketa beka, Emakunde**—Emakumearen Euskal Erakundeak deituta, 69.999 euroko balioarekin; zenbait ikerketa lan ere deitu ditu. Informazioa: <http://cort.as/-OWnM>

* **SmartBerri mugikorrek egindako erreportajeen lehiaketa**. EITBK, zenabitu unibertsitatekin lankidetzan deitu du lehiaketa hau; bere asmoa ikus-entzunezko kazetaritzaren euskarri eta lanketa berriei atak zabaltzea da, euskaraz eta gaztelaniaz, teknologia mugikorraren bitartez. Erreportaje irabazlea EITBK emango du. Hiru sari banatuko dira, 1.499, 499 eta 199€koak. Erreportajeak urtarrilaren 15etik otsailaren 15era gora kargatu ahal dira. Informazioa: <https://goo.gl/kejFP>

Gaztelekuaren programazioa

Abendua

Hilak 4, osteguna, 17, asteazkena, eta 30, asteartea: BAKEAREN HILABETE.

Hilak 10, asteazkena: TXAPELKETA: DARDOAK

Hilak 12, ostirala: MASTERCHEF: GAZTAINA ERREAK

Hilak 18, osteguna: TOPAKETA: ASANBLADA

Hilak 20, larunbata, eta 21, igandea: IRTEERA: GRAFFITIA PORTU ZAHARREAN

Hilak 23, asteartea: EKINTZA SOLIDARIOA

Hilak 24, asteazkena: MASTERCHEF: FRUTAZKO FOUNDUE TXOKOLATEAREKIN

Hilak 26, ostirala: ESKULANA: GOMAZKO PILOTAK

Hilak 27, larunbata: ESKULANA: KOMETAK



Romoko Gazteleku berriaren irekiera dela eta auzoan prozesu bat jarriko da martxan

Udaleko Gazteria Zerbitzuak Romo-Areetan, Romo Kultur Etxe (RKE) berriko beheko solairuan, Gazteleku berri irekiko dela ezagutarazteko prozesua abiaraziko du hilabete honetan, urtarilean. Prozesu honen beste helburuetako bat zerbitzu horretako erabil-tzaileak izango direnei (11 eta 17 urte bitarteko gazteak) inplikatzeko da, honako gai hauek: zerbitzuaren izena, barruko estetika, jokuen, bideokontsolon

eta aldizkarien aukeraketan edo lehenengo hilabeteetako programazioaren diseinuan, programazioa diseinatzeko aukera eman nahi zaie. Landuko den beste alderdi bat urteko lehenengo sei hilabeteetan izango den inaurerazio ekitaldiaren programazioa diseinatzea izango da, horren barruan antolatuko diren jarduerak. Prozesuan zehar Gaztelekuko langileak Romo-Areetako elkar-teen eta ikastetxeekin harreman

netan jarriko dira, baita 11 urte-tik 17 urtera bitarteko gazteekin ere, prozesuan parte hartzera gonbidatzeko. Izan ere, prozesu honen xedea ere bada auzoko herri-tarrak zerbitzuaz jabetzen has-tea.

Era berean, lan saio eta dinamika batzuk lokalean bertan egin ahal izango dira.

Behin lanok amaituz gero, hartu-tako erabakiak praktikara erama-teko urratsak emango dira.

Skautek eta Gaztelekuko gazteek grafiti bat egingo dute Portu Zaharrean

Urtarrilaren 20 eta 21eko aste-buruan (eta eguraldiak uzten baldin badu) aurreikusita dago grafiti bat egitea Portu Zaharreko hormatarrean, kulturartekotasuna eta aniztasuna lokarri izan-go dituen. Romoko Ziztu Bizian eta Algortako Eskubeltz skaut taldeetako kideek eta GauEgun Gaztelekuko gazteek egingo dute grafitia.

Kulturartekotasunari buruzko hausnarketarako espazioak erraz-tu nahi ditu ekimen horrek, Getxon elkarrekin bizi diren gazte taldeen artean; halaber, udalerriko aniztasunarekin eta kulturartekotasunarekin enpatia eragin eta ekintza artistikoak gauzatzea nahi da, gizarteari ikusarazteko. Jarduera hiru zatitan egingo da: larunbatean, 09:00etatik 13:00eta- eta 14:00etatik 18:00etara, eta igandean, bakarrik goizean.



Horma-irudia egiteko parte hartuko duten taldeek, dinamika gauzatuko dituzte, aldez aurretik, aniztasun eta kulturartekotasunaren inguruan. Ondoren, elkarrekin batera eta elkarri lotuta, gra-

fitia margotuko dute. Guztira, 20 gazte parte hartuko dute, 11 eta 17 urte bitartekoak, eta inguruetan karpak jarriko dute materiala utzi eta dagozkien dinami-kak egiteko.

Aurten kopurua handitu da eta 26.880€ bideratuko dira

Gazte intereseko elkarteentzako diru-laguntza deialdia zabalduko da

Urtarrilaren 8tik aurrera eta otsailaren 28ra arte egongo da zabalik herriko gazte intereseko elkarteek beren jardueretarako diru-laguntza eskaera egiteko epea. Dirulaguntza deialdi honetako zenbatekoa iaizko 25.760€tik 26.880€ra igoko da aurten. Diru-laguntza honen

xedea gazte intereseko elkar-teen ohiko gastuekin laguntzea da. Diru-laguntza eska dezakete irabazi asmorik gabeko erakundeek, nortasun juridikoa baldin badute, Getxon helbideratuta badaude eta 30 urtez beheko kideak badituzte edo/eta jarduera guztiak edo ho-

rietako batzuk Getxoko gazteei zuzentzen badizkiete.

Aurkeztutako proiektuak 0tik 100era arteko eskala batean baloratuko dira, kontuan hartuko diren 15 irizpideren arabera banatuko direnak.

Deialdiaren oinarriak eskuratzeko: www.getxo.eus